

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gazte Musikako Zirkuituak Nafarroan Barna programak 20 kontzertu eskainiko ditu urtea amaitu bitartean

Partu hartuko duten hamar taldeek disko bat plazaratu dute guztien lanak biltzen dituen; 1.500 kopia argitaratu dira

Jueves, 23 de junio de 2011

Hamar musika talde amateurrek [Gazte Musikako Zirkuituak Nafarroan Barna](#) programan parte hartuko dute. Ekaina eta abendua bitartean hogeitaz kontzertu eskainiko dituzte Foru Erkidegoko hainbat herritan. Lehenengo kontzertua L2 taldeak emango du bihar, ekainak 24, Tuterako La Locura de Ángel aretoan.



"Gazte Musikako Zirkuituak" programaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Ezcurdia, Lozano, Frías, Goroskieta eta Morrás

Zirkuituan parte hartuko duten taldeak iragan apirilean aukeratu zituzten 27 hautagairen artean; hauek dira: Barracus, Brigada Improductiva, El Mono Pintor, Espíritu de Contradicción, Horthy, Hutsun, Innerve, Inocua, L2 eta Touché; guztiak Nafarroako Artista Gazteen Topaketak lehiaketan saritu edo aipatu zituzten.

Programa Nafarroako Gobernuak antolatu du eta aipatutako topaketen barruan sortu zen, lehiaketa horretan parte hartzen duten musikarien lana zabaltzeko aukerak eta lekuak eskaintzearen. Aurten, hamar talde parte hartzaileetako bakoitzak bi kontzertu eskainiko ditu gutxienez eta kontzertu bakoitzeko 600 euroko ordainsaria eta bidaiari sariak jasoko ditu.

Taldeak sustatu eta Gazte Musikako Zirkuituak Nafarroan Barrena programa hedatzeko, talde bakoitzaren abesti bana biltzen dituen diskoa plazaratu dute eta 1.500 kopia argitaratu dituzte. Horietatik 1.000 CDak dira eta gainerakoak kodedun 500 txartel; kodearen bidez abestiak formatu digitalean deskarga daitezke. Taldeek jarriko dituzte salgai 5 euroren truke eta taldea sustatzeko izango dira.

Ana Frías Pardo Nafarroako Gazteria Institutuko zuzendari kudeatzaileak eta Pedro Luis Lozano Úriz Kulturako zuzendari kudeatzaileak (bi erakunde horiek koordinatu dute programa) gaur goizean aurkeztu dute programa, Brigada Improductivako Javier Morrás eta Mono Pintorreko Gustavo Ezcurdia programan parte hartuko duten musikariek eta Rudy Goroskieta programaren koordinatzaileak lagunduta. Ekimena CAN fundazioak kudeatzen duen Gazte Txartela programarekin

elkarlanean burutu da. Txartel horrek gazteei hainbat zerbitzu eta produktu eskuratzeko aukera ematen die, kasu honetan kulturaren alorrekoa.

Nafarroako Gazte Musikako Zirkuituak honako emanaldiak eskainiko ditu:

- Ekainaren 24an, L2 Tuterako La Locura del Ángel aretoan
- Abuztuan (eguna oraindik zehaztu gabe dago), Barracus Iruñeko Kayak aretoan.
- Irailaren 23an, Inerve Iruñeko Subsuelo aretoan
- Irailaren 30ean, Espiritu de Contradicción, Tuteran
- Urriaren 8an, Inerve Tuteran eta Horthy, Brigada Improductiva eta El Mono Pintor Iruñeko Totem aretoan
- Urriaren 29an, Brigada Improductiva eta El Mono Pintor Tuterako Noboo aretoan
- Azaroaren 11n, Inocua, Tuteran
- Azaroaren 12an, Inocua, Iruñean

Beste kontzertu batzuk ere aurrekusi dira, baina oraindik ez dute egun zehatzik; talde hauenak eta herri hauetan izango dira: Hutsun Burlatan, L2 Totem aretoan, Espiritu de Contradicción La Universal aretoan eta Touché. Kontzertu horien egunak eta beste edozein aldaketa Zirkuituaren antolatzaileek jakinaraziko dituzte